

EUSKARA BATZORDEA	COMISIÓN DE EUSKERA
DATA: 2013-06-06	FECHA: 06-06-2013
HASTEKO ORDUA: 18:00 BUKAERA ORDUA: 19:00 LEKUA: UDALETXEKO BATZAR ARETOA	HORA DE INICIO: 18:00 HORA DE FIN.: 19:00 LUGAR: SALA DE JUNTAS DEL AYUNTAMIENTO
BERTARATUTAKOAK:	ASISTENTES:
Maitane Maritorea (BILDU) Maite Iturre (NABAI 2011) M ^a Carmen Iribarren (UPN) Lohitzune Nuin (euskara teknikaria) Estebe Apezetxe (Bai Euskarari) M ^a Carmen Irungarai (Xorroxin Irratia) Edurne Arrieta (Elizondoko Ikastetxea) Alberto Atxa Julen Mitxeltorena	
GAI-ZERRENDIA: 1. UEMA: Eskaintzen dituen zerbitzuak 2. Euskara Batzordearen lan ildoak 3. Eusko Ikaskuntza 4. Baztango Euskararen Ordenantzaren (BEOren) jarraipena 5. Galde-eskeak	ORDEN DEL DÍA: 1 ^º UEMA: oferta de servicios 2 ^º Líneas de trabajo de la Comisión de Euskera 3 ^º Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos 4 ^º Seguimiento de la Ordenanza del Euskera de Baztan (OEB) 5 ^º Ruegos y preguntas
ERABAKIAK:	ACUERDOS:
1. UEMA: Eskaintzen dituen zerbitzuak. Maiatzean pasatu zen gaia Osoko Bilkuratik ondoren hilabete batez jendaurrean egoteko. UEMAren gaineko informazioa Baztango etxeetan banatuta da. Bertzalde, euskara zinegotziak aipatu ditu UEMAK eskaintzen dituen zerbitzuak eta horiek jasotzen dituen dokumentu bat banatu du (dokumentu hori aktaren	1^º UEMA: oferta de servicios. <i>El asunto fue incluido en el Pleno de mayo para que estuviera en exposición pública durante un mes. Se ha hecho llegar información sobre UEMA a los hogares del Valle.</i> <i>La concejala de euskera ha informado sobre la oferta de servicios de UEMA y ha repartido un documento que recoge información sobre ellos (documento que se</i>

<p>bukaeran erantsi da).</p> <p>UEMAko teknikariek diagnosia eta erabilera plana eginen dituzte.</p> <p>Zerbitzuen artean, merkataritza arloari dagokion zerbitzua ikusten da Baztanen martxan paratzeko egokiena, lehenetsunezko zerbitzu gisa. Zerbitzu horren baitan, merkatariei zenbait dokumentu euskaraz egiteko baliabideak eskaintzen zaizkie (dokumentu ereduak). “Hemen euskaraz bizi gara” dioen seinalea paratuko du UEMAK.</p>	<p><i>adjunta a este acta).</i></p> <p><i>El personal técnico de UEMA realizará un diagnóstico y un plan de uso.</i></p> <p><i>Entre la oferta de servicios, el referido al sector del comercio se ve como el más adecuado para poner en marcha en Baztan como servicio prioritario. Ese servicio contempla poner a disposición de los comerciantes diferentes medios (modelos...) para que produzcan algunos documentos en euskera. UEMA colocará un cartel con el texto “Hemen euskaraz bizi gara” (Aquí vivimos en euskera).</i></p>
<p>2. Euskara Batzordearen lan ildoak.</p> <p>Heldu den urteari begira Euskara Batzordearen lan ildoak zehaztu behar dira, batez ere euskalgintzaren eta Euskara Batzordearen zereginak bereizteko eta batzuk bertzea ez zapaltzeko. Proposamenak ondoko bilkurarako ekarri behar dira.</p>	<p>2º Líneas de trabajo de la Comisión de Euskera</p> <p><i>De cara al próximo año hay que concretar las líneas de trabajo de la Comisión de Euskera, principalmente para definir las funciones de la ‘euskalgintza’, la iniciativa social a favor del euskera, y las de la Comisión del Euskera, para que no se solapen unas y otras. Las propuestas se traerán a la próxima reunión.</i></p>
<p>3. Eusko Ikaskuntza.</p> <p>Euskara zinegotziak azaltzen du bilkura bat izan zela Eusko Ikaskuntzarekin. Bada hitzarmen bat udala eta Eusko Ikaskuntzaren artekoa, 1.500 eurokoa. Eusko Ikaskuntzak adituak baditu, eta hitzarmen horren bitartez aditu horiek eskainitako hitzaldiak, tailerrak... eta bertzelako jarduerak ekartzen ahal dira. Halaber, azaltzen du erabaki dela aurten Eusko Ikaskuntzarekin sinatutako hitzarmen horren bitartez landuko den gaia euskara izanen dela. Eusko Ikaskuntzak proposatu du hizkuntza ekologiarekin lotutako tailer bat eta mahai-inguru bat egitea. Udazken aldera eginen da.</p>	<p>3º Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios vascos</p> <p><i>La concejala de euskera informa de que hubo una reunión con los representantes de la Sociedad de Estudios Vascos. El Ayuntamiento tiene firmado un convenio de 1.500 € con dicha entidad. La Sociedad de Estudios Vascos cuenta con especialistas y el convenio prevé que se oferten en Baztan conferencias, talleres y otras actividades impartidas por esos especialistas. Asimismo, informa que se ha tomado la decisión de que este año será el tema del euskera el que se tratará en las actividades que se organicen dentro del convenio con la Sociedad de Estudios Vascos. La Sociedad ha propuesto organizar un taller y una mesa redonda sobre ecolingüismo. Se organizarán hacia otoño.</i></p>

<p>4. Baztango Euskara Ordenantzaren (BEOren) jarraipena Euskara Zerbitzua egiten ari da Euskararen BEOren betetze-mailaren azterketa.</p>	<p><i>4º Seguimiento de la Ordenanza del Euskera de Baztan (OEB)</i> <i>El Servicio de Euskera está realizando un informe sobre el nivel de cumplimiento de la OEB.</i></p>
<p>5. Galde-eskeak Ez dago.</p>	<p><i>5º Ruegos y preguntas</i> <i>No hay.</i></p>
<p>HURRENGO BILERA: Irailean izanen da eta data zehatza beharraren arabera erabakiko da.</p>	<p><i>PRÓXIMA REUNIÓN: será en septiembre y la fecha concreta se decidirá según la necesidad.</i></p>

UDALERRIKO ESPARRUAK NORMALIZATZEKO EKINTZAK

MERKATARITZA

Urte hasieran, gutun bat eta egutegi bat bidaltzen ditugu herriko komertzio guztietara, UEMAREN merkataritza kanpainaren berri izan dezaten, eta euskararen erabileraren aldeko hautua egin dezaten eguneroko zereginetan.

Errotulu, karteltxo, ordainagiri eta faktura takeoz gain, alorkako **hiztegiak** ere eskaintzen dizkiegu merkatariei. Establezimenduetan banatu ez ezik, gure webgunean ere zintzilikatzen ditugu (<http://www.uema.org/default.cfm?atala=kanpainak&id=3>)

- UEMAK **profesional euskaldunen gidan** sartzeko aukera emango die herriko profesionaleri, eta sarean jarri, balizko bezeroen eskura.
- **Itzulpen lanak**: gaztelaniatik euskararako itzulpen laburrak egitea (menuak, karteltxoak, errotuluak...).
- Euskara **zuzenketak** eskaintzea, idatzizko elementuetan euskararen kalitatea bermatuta egon dadin.




Udal espedienteak

UEMaren web orrian dauden udal espedienteak berritzen eta berriak sartzen joango gara, eta aldaketen berri emango dugu aldiro.

Horrez gain, beste erakunde eta eragileekin harremanetan egongo gara, euren materialaren berri izan eta udalei jakinarazteko.

Udalen batek espediente ereduren bat beharko balu, saiatuko ginateke lortzen.



Dokumentuak zuzentzea

Udal dokumentuak zuzenduko dizkiegu hala eskatzen duten udalei, beti ere ordezkari bat edo bi dutenei (1. eta 2. multzoko udaletako langileei), esate baterako, udal aldizkaria, jailetako egitaraua, agiriak...

Zuzenketak baino ez ditugu egiten, hau da, ez dugu itzulpenik egingo, suposatzen baita udal langileek euskaraz egiten dutela lan, eta euskaraz sortzen dituztela testuak.

Horrez gain, beste erakunde batzuekin elkarlanean jardungo dugu, udaletarako dokumentuak euskara txukunean egon daitezen.

Udal kontratazioak

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako *Udalekin* egitasmoaren baitan udal kontratazioen gaia landu dugu, eta bertatik atera den proposamenaren zabalkundea egingo dugu. Zabalkundea, hasiera batean, EAEko udaletan egingo dugu, Gipuzkoako udaletatik hasita.

Egitasmoaren barruan dauden udaletan bi motatako zerbitzua emango dugu:

- Euskara zerbitzu propioa duten udaletan, aholkularitza emango dugu, udal kontratazioetako hizkuntza klausulen lanketarekin lotutako gaietan.
- Euskara zerbitzu propiorik ez duten udaletan, udal kontratazioetako hizkuntza klausulak txertatzeko eta horien jarraipena egiteko ardura hartuko dugu.

Egitasmoan sartuta ez dauden udaletan ere zerbitzua emango dugu, baita aholkularitza ere, sor litezkeen zalantzak argitzeko.

ETORRI BERRIEN HARRERA-PROGRAMAK


Etorri berria erroldatzera datorrenetako, **harrera-diptiko** eredu bat prestatuta daukagu mankomunitateko herri guztietarako, eta, bertan, honako edukiak sartuta daude, besteak beste:

- Euskal Herrira datorrela eta euskara dela bertako hizkuntza.
- Gurea herri euskalduna dela, %70etik gora euskaldunak garena, eta euskara dela herritarren eguneroko hizkuntza, esparru guztietan.
- Lehen aldiz etorri denez, gure udalerriko zerbitzu publikoien eta bere intereserako izan daitezkeen beste hainbat erakunderen gaineko informazioa (zertarako diren, helbidea, telefonoa...)



Diptiko hori éle biz banatuko da, euskaraz eta beste hizkuntza batean, eta etorri berriak gertuen sentitzen duen hizkuntzan emango zaio. Sei hizkuntzataro moldatuta daukagu: euskara-gaztelania, euskara-frantsesa, euskara-ingelesa, euskara-errumaniera, euskara-arabiera eta euskara-portugesa.

- **Hiztegitxoak:** euskara/ catalá, deutsch, italiano, roman, wolof, amazigh, djoula, serer, aymara, english, portuguesa, urdu, castellano eta hruatski.



ABIZENAK EUSKALDUNDU

Txartel batzuen bidez, abizena euskal grafiaz izateko eman beharreko pausoak azaltzen ditugu.

- Horrez gain, **bandoak** ere prestatzen ditugu herritarrei jakinarazteko.



ERRENTA AITORPENA

Herritarrek errenta aitortpena euskaraz egin dezaten **bandoak** egin, **informazioa** eman, **datuak** helarazi, **prentsa oharra** argitaratu eta **kanpainak** diseinatuko ditugu.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Matrikulazio garaian, herri txikietan ere taldeak sor daitezkeen koordinatzen ditugu eskualdeetako euskaltegiak eta udalak. Horretarako, besteak beste, kartelak prestatuko ditugu informazioarekin (udalak diru-laguntzak ematen dituela jakinaraziz).

Horrez gain, euskalduntze-alfabetatzeko diru-laguntzak emateko arautegi, ordenantza eta antzekoak osatzeko laguntza ematen diegu udalei. Gainera, oinarri gisa erabili ahal izateko, gure webguneko espedienteen atalean zintzilikatuta ditugu herri batzuetako ereduak.

EUSKO JAURLARITZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzatik udaletan euskararen erabilera sustatzeko banatzen diren diru-laguntzei dagokienez, baliabide hauek eskaintzen ditugu UEMATik:

- Ordezkaririk bakarra duten herrietan: planen diseinua eta diru-laguntzen tramitazioa.
- Gainerako herrietan: planen diseinuan aholkularitza eta UEMAK egiten dituen ekintzen inguruko txostenak.

UEMaren IZAERA ETA UDALERRI EUSKALDUNEN IZAERA EZAGUTARAZTEKO EKINTZAK

Arnasguneei buruzko tailerrak

Gune eskaldunen garrantziaz eta euskararen iraupen eta sustapenean duten paperaz herritarrak kontzientziatzeko tailerrak dira, UEMAK Kontseiluarekin, Topagunearekin, EMUNekin, Bertsozale Elkartearekin eta EHArekin elkarlanean sortuak.

Bi orduko bi saiotan banatuta daude. Oso modu praktikoa, bideoen eta eztabaida-taldeen bidez, gai hauek lantzen ditugu: zer diren arnasguneak, zenbateko garrantzia duten, herri bakoitzean zer hutsune dauden euskaraz egiteko eta zer egin daitekeen hutsune horiei aurre egiteko.

UEMARI buruzko erakusketa

Zortzi panel ditugu, arnasguneak zer diren azaltzeko. Oso modu labur eta argian azalduta dago gaia panel horietan. Egokiak izan daitezke beren horretan erakusketa bat antolatzeko, bai eta katalogo honetan ageri diren beste tailer eta aurkezpenen osagarri gisa ere.

UEMARI buruzko informazioa

Aurkezpen bat prestatuta daukagu, UEMaren jatorria eta ibilbidea azaltzeko, etorkizunera begirako helburuak eta lehentasunak azpimarratzeko, eta, batez ere, UEMA zer den eta zertarako behar den sa-kontzeko.

Udal ordezkariari, euskalgintzako kideei edo gaiarekiko interesa duen edonori egiteko moduko aurkezpena da.

